

16tik 18ra

10:00etan.- **Liburu eta disko azoka** (egitaraua barruan). Gernika pasealekuko pilotalekuan.

16 OSTIRALA

12:00etan.- **Olentzeroren marrazki lehiaketako sari banaketa**. Udal Batzar aretoan.

17 LARUNBATA

20:00etan.- **Gabonetako dantza jaialdia**. Usurbe antzokian. Antolatzailea: Ostadar dantza taldea.

18 IGANDEA

8:00etan.- **Mendi-irteera: Beasain inguratuz**. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

19 ASTELEHENA

9:00etan eta 11:00etan.- **Antzerkia eskolaumeentzat: Peter Robertsen emanaldia** (alkohol kontsumoaren prebentzioa). Usurbe Antzokian.

21 ASTEAZKENA

9:30ean.- **Haur zinea eskolaumeentzat: "Igelak"**. Usurbe Antzokian.

23 OSTIRALA

Bareaken ekintzak Bareak Merkatarien elkarteak antolatuta:

18:00etan **Kale animazioa** herriko kaleetan zehar.

20:00etan **Txokolate jana**. San Martin plaza azpian.

20:00etan **Bareaken Gabonetako Saskien zozketa**. San Martin plaza azpian.

20:30ean.- **Loinatz abesbatzaren Eguberrietako kontzertua**. Andre Mariaren parrokian.

Musika Eskolako Eguberrietako kontzertua.

24 LARUNBATA

08:00etan.- **Mendi-irteera: Aitzgorri**. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

12:00etan.- **Olentzero**. Ikastetxeen bilkura. Loinazko San martin plazan.

17:30ean.- **Gabon eskea**. Igartzako multzotik.

25 IGANDEA

12:00etan. **Udal Txistulari Bandaren Kalejira**. Beasaingo kaleetan zehar. Antolatzailea: Udal Txistulari Banda.

27 29 OSTEGUNA

16:30etik 20:00etara. **Gabonetako Haur Parkea**. Antzizar kiroldegian.

30 OSTIRALA

08:00etan.- **Mendi-irteera: Txindoki**. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale elkarte.

31 LARUNBATA

12:00etan.- **Helduen eta haurren San Silbestreko lasterketak**. Izen ematea: 10:00etan Gernika pasealekuko pilotalekuan.

Lasterketen ordutegia:

8-9 urte: 10:30ean, 10-11 urte: 14:45ean, 12-13 urte: 11:00etan, 14-15 urte: 11:00etan, 11:15ean: sari banaketa, 11:30ean: haiaiketako

ERAKUSKETAK Ordutegia: 19:00-21:00.

Abenduaren 2tik 11ra

Argazki erakusketa. "Beasaingo hiria" argazki lehiaketako irabazlearen eskutik. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkarte. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Abenduaren 16tik 30era

18:30ean.- **Goierriko Artisten X. Topaketa. Inaugurazioa**. Igartza Jauregian. Erakusketaren ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

19:00etan.- **Goierriko Artisten X. Topaketa**. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

GOIENIZ
zinekluba

1 OSTEGUNA

21:00etan.- **Zine-kluba: "La nana"** filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba

15 OSTEGUNA

21:00etan.- **Zine-kluba: "Animal kingdom"** filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

22 OSTEGUNA

21:00etan.- **Zine-kluba: "Una mujer, una pistola y una tienda de flores"** filmaren emanaldia. Usurbe antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

29 OSTEGUNA

21:00etan.- **Zine-kluba: "Gau laburra"** filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.



L.G. SS-1284-2008

Paper birziklatuan egina 3864-011

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2011ko abendua 36



Beasaingo Udala



Auzotarren ekarpenak aztergai

4

GOIERRIKO ARTISTEN
TOPAKETA
10. urteurrena ospatzeko
bi erakusketa antolatu
dituzte

5

LIBURU ETA DISKO AZOKA
Abenduaren 16tik 18ra he-
rritarrek azken argitalpenak
eskuratzeko aukera izango
dute.

6

BAREAK-EKO GABON
KANPAINA
Merkataritza Elkarteak
kanpaina erakargarria martxan
jarriko du.



"Beasaingo mendiak elurretan" 2010. Luisa Zurutuza.



"Igartzako jauregia, zubia eta ermita", 2008. Xabier Garmendia.



"Jubilatuak Errioxara", 2010. E.Mujika.

Beasain



"Azkater Pelox Dolarean", 2010. Xabier Eskisabel.

eta beasaindarrak



Zintzilikatu zure argazkiak
www.guregipuzkoa.net
webgunean edo bidali
udala@beasain.net
posta elektronikora zenbait
beasaindarrek egin dute jada.

Animatu zaitez!

"Beasaingo graffitia", 2008. Xabier Eskisabel.



"Beasaingo buruhandiak", 2010. Xabier Garmendia.



"Entzierrilloko gazteak", 2011. Xabier Garmendia.

Alkatearen txokoa...

GABONAK ATE JOKA

Koldo Agirre



Urtea amaitzeaz den honetan, 2011ko azken alearekin gatzoz. Lehenik eta behin, Iñaki Azurmendi aitzakaria zoriontzat dagokit, Euskal Herriko txapeldun suertatu baitzaigu, balentria bikaina lortu zuelarik azaroaren 6an Elizondon.

Bestalde, orain dela hilabete inguru hasi genituen auzoetako bilerak amaitu ditugu eta udaletik eskertu nahi genuke auzo guztietan jaso dugun harrera ona eta jendeak izan duen parte-hartzea. Jasotako iradokizun guztiekin, ea denon artean Beasain hobe bat lortzeko bidea egiten dugun. Esan, jaso ditugun iradokizun, kexa eta ideiak, aztertu eta hauen berri ere emango dizuegula.

Bestetik, urte amaiera datorrela eta, urteroko liburu azoka izango dugu

abenduaren 16tik 18ra bitartean, eta aurten ere, ekintzaz beteta dator bai haur zein helduentzat. Gainera, ezin dugu ahaztu Olenzero ere gure artean izango dugula abenduaren 24an (komenigarria izan daiteke egun honetako akto garrantzitsuenen erreferentzia jartzea).

Gabonekin jarraituz, herriko merkatariek kanpaina berezi bat eskainiko digute herritarro, gabonak datoztela eta herriko merkataritza bultzatzeko asmoarekin.

Amaitzeko esan, hilabete honetan egun bereziak izango ditugula kontuan izanda, gabon zoriontsuak pasa ditzazuela herritar guztiok, zuen aldamenean dituzuenekin disfrutatuz eta gure artean falta ditugunak gogoan hartuz!

Zer iruditzen auzoz auzoko bileren inizatiba?



Maite Zabaleta

"Ideia oso ona iruditzen zait. Orain ezin dugu aitzakiarik jarri, herritarren parte hartzea bultzatzeko gauzak egiten ari baitira. Gure kezkak eta ekarpenak Udalak kontutan hartzea primerakoa iruditzen zait. Gainera, auzoetan dau den arazoak bertakoek ezagutzen dituzte inork baino hobeto. Beasaingo auzoak beste herri bat izango balira bezala kontsideratu izan dira, eta garaia da beraiek ere kontutan hartzeko".

Por deseo expreso de esta persona hemos preservado su identidad

Irina

"Soy de Rumania pero vivo en Beasain. Yo creía que esas reuniones eran solo para los de aquí y no para los extranjeros. Ahora que sé que también puedo participar, la próxima vez intentaré ir. La gente tiene muchos problemas, el trabajo nos preocupa a todos y creo que es bueno que el Ayuntamiento escuche y ayude a la gente".



Blanca Garmendia

"Auzoetan bilerak egitea mesedegarria da guztiontzat. Baina nire ustez bilera horietara zertxobait prestatuta joan behar da, hau da, irizpide bat edukiaz. Egungo gizarte indibidualista honetan oso positiboa da herritarrek elkartzea eta ideiak guztien artean eztabaidatu eta adostasun batera iristea. Tamalez, ezin izan nuen auzoko bilerara joan, biloba zaindu behar nuen eta. Ea beste batean joateko aukerarik dudan!".



Iñaki Lopez

"Kontua ez da bakarrik ordezkari batzuk bozkatzeko; ordezkari horiek herritarrek aintzat hartu behar dituzte, horregatik iruditzen zait oso ekimen ona. Herriaren hobe-kuntza guztien artean eman behar da, eta herritarren ahotsa kontutan hartu behar da horretarako. Nire gurasoek, esaterako, bizitza guztia eman dute Beasaingo erdigunean eta beraien esperientzia eta ezagutza, beste auzokideena bezalaxe, aberasgarria izan daiteke ekarpenak ematerako garaian. Espero dut inizatiba honi jarraipen bat emango diotela, edozein proiektu edo obra egin behar denean herritarren iritzia kontutan eduki dezatela".

10 urte *artea* uztartuz

Goierriko Artisten Topaketak 10 urte bete ditu. Talde hori 2001.urtean hasi zen zenbait artistaren lanak biltzen. Edizio guztietan bai-larako zein beste hainbat tokitako arte lanak izan dituzte herritarrek ikusgai Usurbe Antzokian. Urtetik urtera estilo, profil eta diziplina ezberdinetakoa lanek apaindu dituzte bertako hormak, kideen sormena eta kalitatea agerian utziaz. Orain, 10. urteurrena ospatzeko, bi erakusketa antolatuta dituzte: bata Antzokian eta bestea, Igartza Jauregian. Egile bakoitzak bi lan aurkeztuko ditu (bat aretoko). Erakusketa horiek abenduaren 30 arte izango dira ikusgai.



Leire Markinez, Eli Agirre eta Itziar Rodriguez.

Ya lo decía E.H. Gombrich en su clásica *Historia del arte*. "No existe el arte, sólo los artistas". Esa afirmación responde a la importancia del factor humano en él. Cada artista tiene su propia percepción de la realidad, su propio yo, su propia identidad.

Han pasado diez años desde que el Encuentro de Artistas del Goierri echó a andar, una iniciativa que año tras año ha reunido a diversos artistas de la comarca y a algunos invitados de fuera. Cada edición ha ido sumando más miembros y en la actualidad son casi una treintena las personas que conforman el grupo.

La organización y la puesta a punto de la exposición se van turnando cada año. Este año, el del décimo aniversario, les ha tocado a Eli Agirre, Itziar Rodríguez y Leire Markinez. "Todos los años, tras la inauguración de la exposición hacemos una cena. En la del pasado año, sabiendo que éste sería nuestro décimo cumpleaños, pensamos en hacer algo especial. Por ello decidimos que sería bonito organizar dos exposiciones, una en Usurbe, como siempre, y otra en el Palacio de Igartza. Así, cada uno de nosotros expondría dos trabajos, uno en cada muestra", aclara Leire.

Así, las dos exposiciones que abrirán sus puertas el próximo día 16 de diciembre acogerán trabajos de

Artista bakoitzak bi lan aurkeztuko ditu. Hala, margolaritza, eskultura edota argazkilaritza lanak izango dira ikusgai



su propio estilo y su propia forma de ver las cosas. Y eso queda reflejado en cada exposición colectiva que hacemos".

Urteurrena ospatzeko, abenduaren 16an bi erakusketa jarriko dituzte: bata Usurbe Antzokian eta bestea Igartza Jauregian. ORDUTEGIA: 18:00etatik 20:00etara Igartzan eta 19:00etik 21:00etara Usurben.

OHARRA:
abenduaren 16an, arratsaldeko 18:30etan, Goierriko Soiuz Bossa Nova konboak kontzertua eskainiko du Igartzan, erakusketa inauguratzeko.



Badator Liburu Azoka

Como todos los años, la Feria del Libro y el Disco volverá a reunir a los amantes de la lectura y la música en torno a los puestos que se colocarán en el frontón del Paseo de Gernika. La feria permanecerá abierta los días 16, 17 y 18 de diciembre. Esta edición contará con las últimas novedades en literatura infantil, y de adultos, además de las producciones musicales más recientes de nuestra geografía. Asimismo, el Ayuntamiento y ELEDA (Euskal Liburu eta Disko Azoka) han confeccionado un programa lleno de actividades para todos los públicos.

egitaraua

ABENDUAK 16 OSTIRALA

Goiza
Ikastetxeetako bisitak
18:30

IREKIERA EKITALDIA.
Aurtzaka.
Bertso eskolako ikasleak
20:00

Igartzako jauregian
"Eta orain badakit itsaso kontra bat"
hitz musika eta irudizko poesia
irakurketa

ABENDUAK 17 LARUNBATA

13:00

Udal Musika Eskolako Trikitilariak
17:00



Mintzodromoa
19:00
Iruñeako erraldoiak
Gaztaina erreak

ABENDUAK 18 IGANDEA

12:30

Migel Angel Mintegiren
"Heriotza zuriz jantzita"
13:00

Kantujira.



Urtero lege, Euskal Liburu eta Disko Azokan salgai jarriko dira azken nobedadeak. Adibidez:

helduentzat

- Xabier Leteren biografia, Inazio Mujikaren eskutik.
- Aurten Euskadi Saria izan den "Moroak gara behelaino artean", Joseba Sarrionandiarena.
- "Errepidea", Miren Agur Meabe.
- "Nafarroa 1512". Juan Luis Landá.
- Amaia Iturbek poesia liburu berria plazaratuko du.
- Lau Kantari: Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal, Ruper Ordoñika". Juan Gorostidi.

haur eta gazteentzat

- Nur bildumaren 7. Atala. Toti Martínez de Lezea.
- "Gauko Ipuinak".
- Xagu eta Xiga "Baga Biga Matematikak", 5 eta 6.mailak
- "Beldurra ematen dizu, Kroko"
- Pupu eta Lore
- Tartalo jokua
- Pirritx, Porrotx, Marimototx eta Pupu eta Lore.

Mirentxu, irakurketaren plazerra herritarrei transmitituz.

Mirentxu Liburu Dendak urteak daramatza Beasaingo Liburu Azokarako materialak aukeratzen, besteak beste. "Azoka honetan jartzen da aukera euskaraz argitaratzen den liburu, CD, filme eta jokuak ezagutu eta erosteko. Horretarako saiat-

zen gara ahal dugun produktu gehienak eramaten eta beti ere kontutan hartzen da Udaletik banatzen den katalogoa. Katalogo honetan adierazten da oso garbi bai urteka eta bai gaika ere zer atera den urtean zehar eta orain Gabonetarako euskaraz.

Azoka honek arrakasta handia du urtetik urtera, izan ere, Gabonetako opariak egiteko aukera ona da eta gainera hemengo produktu guztiek deskontua izaten dute", dio Maite Izagirrek, Mirentxu denda arduradunak.

**Eguberri doinuak Musika Eskolako eskutik**
Musika Eskolakoek Eguberri Kontzertua eskainiko dute hilaren 23an.

Musika Eskolak antolatzen duen Eguberri Kontzertua sendotzen doa urtetik urtera. Aurtengoan 100 bat ikasle izango dira taula gainean: alde batetik musikariak, banda eta Akordeoi taldea; bestetik, abeslariak, Abesbatza, Koral taldea eta Musika Lengoaia 3. mailako ikasleak. Hala, eta ohitura zaharrei eutsiaz, Eguberri doinuak izango dira batik bat egitaraua osatuko dutenak. "Ilusio handiarekin prestat-

zen dugun kontzertua da, Eguberriak beti gehiago gerturatzen gaituelako edo... hainbeste taldek parte hartzeak lan handia ematen badu ere, merezi duela uste dugu", diote antolatzaileek. Emanaldiaren amaieran "Hator, hator" eta beste zenbait kanta abestuko dituzte, besteak beste. Musika Eskolakoek herritarrek kontzertuaz gozatzera animatzen ditu. Eguberri On!!



CARLOS GONZÁLEZ,
portavoz de la junta
de la asociación
de comerciantes
Bareak.

Queremos que el sorteo se convierta en tradición, en una costumbre. Así, conseguiremos dos objetivos: defender los intereses de los comerciantes y hacer que los beasaindarras vivan, disfruten y gasten en Beasain”.



ARGIDER JAUREGI
Optika Jauregi

“Edozein ekimen da ona herriko merkataritza bultzatzeko. Gabonetako kanpaina eta bes-telakoak merkataritza guztien artean zehazten ditugu. Guztiok bat eginda, indar gehiago dugu-eta. Jendeak gero eta salmenta pertsonalizatuagoa eskatzen du. Bezeroak produktua erosi aurretik horren inguruko informazioa biltzen du eta horregatik exigentzia maila handiagoa da. Merkataritza ere garai berrietara moldatzen saiatzen ari gara, ikastaroak jasoaz, adibidez. Gaur egun profesionalizazio bat ematea eta egunetik egunera zerbitzu hobea eskaintzen saiatzea ezinbestekoak dira”.



EVA MARTÍNEZ
Itak moda y
complementos

En diciembre, sortaremos una cena cada semana entre todos los que compren en nuestra tienda. Además, hemos ideado una campaña que consiste en la promoción de una prenda a la semana: la semana del abrigo, del jersey...nuestro objetivo es que la gente aproveche las ofertas que les ofrecemos, mimar a nuestra clientela para que no se vayan a comprar a Urbil, que al final les sale más caro”.



Se sortearán seis cestas y cuatro viajes entre todos los que compren en los comercios de Bareak, además de 25 camisetas de la asociación.

Bareak-en Gabonetako kanpaina

¡Consigue viajes y atractivos regalos comprando en las tiendas de la asociación!



Gabonetan kaleek xarma berezia hartzen dute. Argiteriak, gabon kanten doinuak eta denden erakuslehoi zoragarriak halako txundipena sortzen gaituzte. Giro horretan, merkataritzak paper garrantzitsua jokatzeko du. Horregatik, Bareak elkarteak zozketa aparta antolatu du datorren abenduaren 23rako: opariak, diru-sariak, eta produktu mordoxka eskuratzeko aukera izango dute elkarteko dendetan erosten dutenek. Beasainen erosi eta zorte on!

Bareak Elkarteko merkatariek, urtero lege, beren sormena eta joera berriztatzailea erakutsi dute gabonetako kanpainarako. Hala, guztiek euren ekarpena jarriaz, 4.000 bat euro bildu dituzte erosten artean opariak eta beste motatako sariak zozketatzeko.

Merkataritza elkarteko dendetan erosten dutenei kupoi bat eman- go zaie egiten duten erosketa bakoitzeko. Kupoi hori euren datu pertsonalekin bete eta abenduaren 23an arratsaldeko 20:00etan Martingo Loinaz Plazan egingo den zozketan sartuko dira zuzen-

nean. “Guztira 10 sari zozketatuko ditugu, horietatik sei Bareak-eko denden produktuei osatutako saskiak izango dira, eta beste lau, bidaiak. Horrez gain, elkarteko 25 kamiseta zozketatuko ditugu. Zozketaren aurretik, kale-animazioa izango da protagonista eta, 20.00ak aldera txokolatea izango da dastagai. Herritarrei plazapera gerturatzeko gonbitea luzatzen diet”, dio Carlos Gonzalezek, Bareak Elkarteko batzordeko bozeramaileak.

Ekimenaren helburua da, Gonzalezek esanetan, “herritarrek gabonetako erosketak Beasainen egitea, merkatarien aldetik kalitatezko produktuak eta zerbitzua jasotzeko”. “Guztira 80 bat kide ditugu Bareak elkartean. Merkatariek zein ostalariek ekarpen asko egiten dituzte urtean zehar anto-

Abenduaren 23an, zozketaren aurretik, kale-animazioa izango da ikusgai 18:00etatik 20:00etara. Jarraian, txokolatea dastatzeko aukera izango da udaletxepean.

Los comerciantes y hosteleros de Beasain animan a la ciudadanía a realizar sus compras de navidad en el municipio

latzen ditugun jardueretan”.

“Un salto cualitativo”

En el transcurso de 2011 Bareak ha llevado a cabo diversas actividades con el fin de dinamizar e impulsar el comercio beasaindarra. Así lo corroboran desde la asociación: “Bareak está en pleno crecimiento. En hostelería también hemos duplicado el número de asociados gracias, sobre todo, al pintxo-pote. Iniciativas como la Pasarela Bareak o la Feria han sido muy exitosas en cuanto a afluencia de gente, participación y facturación. Ésta última, en su primera edición, fue espectacular. De cara a 2012 queremos seguir en esa línea, ya estamos inmersos en el plan de trabajo del año que viene”.

Laster datoz Olentzero eta Mari Domingi!



Kostata baino lortu dugu. Olentzero, Euskal Herriko ikazkin ospetsuena, lanean harrapatu genuen bisitan joan ginen egunean. Berean oso kontzentratuta zegoenez, hasieran ezin izan genion hitzik atera. "Tira gizona, une bat besterik ez da izango! Beasaingo haurrek mereziko dute ba zure hitzik entzutea!!" Mari Domingik konbentzitu du azkenean. "Burugogorra da gure Olentzero hau batzutan, badakizu", dio. Sutondoan eseri eta Eguberri bezperan Beasainera jaisteko irrikitan daudela aitortzen dute. Egun gutxiren faltan guztia prestatzen ari dira dagoeneko...

Olentzero, gustura joaten al zara Beasainera bertako gaztetxoak agurtzera?

Bai, horixe! Zoragarri tratatzen naute. Gainera ongietorria euskal tradizioak eskatzen duen bezala ematen didate: guztiak baserritarrez jantzita gure kantak abestuz. Gainera argazki pila eskatzen dizkidate, baita gurasoek ere e! -dio algara batean-. Ni ikustean poz-pozik jartzen dira, eta ordainetan, biziki estimatzen ditudalako, gozoki mordoxka ematen diet!

Mari Domingi, zuk laguntza ematen diozu, ez?

Mari Domingi. Beharko!! Gure Olentzero urtean zehar ikatz tartean ibiltzen da, eta ez ditu gizarte harremanak asko lantzen. Ohituta dago umeekin, baino badu bere lotsati puntua eta urduri jartzen da. Nik lagundu egiten diot ume guztientzat urtero prestatzen dugun mezua taula gainean irakurriz. Historian zehar emakumeak ixkutuan ibili gara lanean. Beraz, laguntza eskatu zidan momentutik, ni ere umeengana joateko desiatzen egoten naiz. Kontua da nire estraineko aldi gona zikina eraman nuela eta umeek kanta sortu zuten nire gona zikin hori zela-eta! Baina ilusio handia egiten dit abesti hori entzutea, arropa zaharrei buruz bada ere!

Ume asko joaten da Olentzerorekin egotera...

Olentzero. Bai, bai. Beasaingo eskola guztietako haurrak etortzen dira eta bakoitzari lauzpabost gauza esaten dizkiet, batez ere urte guztian zehar txintxoak izan daitezela.

Mari Domingi. Ilara izugarria sortzen da Olentzerorekin egoteko, ordu bete baino gehiago pasatzen du muxuak banatzen. Institutio bihurtu da gure Olentzero!!!

Ondo moldatzen al zarete biok?

Olentzero: Bai, noski.

Mari Domingi: Beno, gure eztabaidak izaten ditugu, nahiko burugogorra baita! Baina beti parrez amaitzen dugu. Umore ona beharrezkoa da.

Zer eskatuko zenieke Beasaingo gaztetxoei?

Olentzero: Erakusten duten ilusio hori ez galtzeko, gu oso zoriontsu egiten gaituzte-eta. Ez bakarrik opariekiko ilusioa: gauza berriak ikasteko eta pertsona bezala hobetzeko ilusioa mantentzeko eskatzen diegu.

Mari Domingi: Olentzerori eta bioi ez zaizkigu gaiztakeriak batere gustatzen. Hobe da bizitzan irrifar batekin eta borondate onez jokatzeko. Horrelako jokabidearekin beti izango gara haurrekin eskuzabalak, merezi dutelako!!!



"Aizkolaritzan indarra eta burua erabiltzen jakitea ezinbestekoa da"

Técnica, fuerza, concentración, trabajo y constancia. Son algunos de los factores que determinan el porvenir de un aizkolari. Iñaki Azurmendi aúna, hoy por hoy, todos esos elementos. Ahora le toca saborear la recompensa, ya que el pasado mes de noviembre se proclamó campeón de Euskal Herria de Primera, en una cita en la que no faltó el suspense hasta el último segundo: el de Arriaran, tras superar la primera eliminatoria en Arbizu, se impuso en Elizondo a Nazabal en una final emocionante, ya que tan sólo les separaron seis segundos. Azurmendi relata cómo vivió esa experiencia, al tiempo que nos acerca sus vivencias y sentimientos como aizkolari. ¡Zorionak, Iñaki!

IÑAKI AZURMENDI, CAMPEÓN DE EUSKAL HERRIA DE AIZKOLARIS

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa irabazi berri duzu. Txapel horrekin zure ametsetako bat bete da?

Bai, noski. Txapel hau eskuratzea edozein aizkolariren ametsa da. 22 urterekin hasi nintzen aizkolaritzan, orain dela 17 urte. Beasainen bertan hasi nintzen, Gasteizen hainbat urte eman nituen eta 22-23 urterekin etxera itzultzean, orduantxe hasi nintzen. Lagun arteko jolasaldi bezala hartzen nuen garai hartan, eta azkenen begira non amaitu dugun...

"Beasaingo gazteei aizkolaritza hobeto ezagutzeko aukera eman beharko litzaieke"

Beasaindarrak gerturatu al zen Elizondora?

Anai-arrebak, senitarteak, Arriarango jendea eta zenbait herritar etorri ziren bai... pentsa, txapelketa osteko bazkarian 50 bat lagun elkartu ginen! Jende asko hurbildu zen, eta hori eguraldi kaxkarra atera zela... ezin naiz kexatu.

Eta aurrerantzean... zein dira zure erronkak?

Lehenik maila honi eustea, behin honaino iritsita... eta Euskal Herriko txapela beste behin lortzea ez litzateke batere gaizki egongo! Aurrera begiratu behar da, lan asko eginez eta egungo sasoia mantentzen saiatuz.

Fisikoa inportantea da, noski, baina arlo psikologikoak zein papel jokatu du proba batean?

Indarra eta burua ibiltzen jakitea ezinbestekoa da. Teknika ere oso garrantzitsua iruditzen zait, mozketa nola egin ez badakizu, zaila da maila on batetara iristea. Teknika ahalik eta ondoen menderatzea funtsezkoa da, baita kontzentrazioa ere.

Herritarrek biziki estimatzen dute zuk egindako lana. Espero zenuen halako harrera?

Eskertzekoa da herritarrek emandako harrera. Udala eta beasaindarrak nirekin gogoratzea ohore bat da niretzat, benetan izugarri eskertzen diet.

Herrian kirol honetarako afizio berezik nabaritzen duzu?

Egia esan egungo gazteek ez dute gehiegirik ezagutzen kirol hau. Herri mailan ezer gutxi erakusten zaie aizkolaritzaren inguruan. Ongi legoke oinarritzko ezagutzak eskoletan irakastea, kirol polita da eta interesgarria izango litzateke Beasaingo gazteei hura ezagutzeko aukera ematea.

Etorkizuna bermatua du aizkolaritzak?

Nik baietz esango nuke. Gipuzkoan nahiko afizio dago. Araban maila handia dago gazteen artean, eta Bizkaian zein Nafarroan ere gazte berri asko atera da. Zentzu horretan, kirolaren etorkizuna bermatzen da, baina ez galtzeko lanean jarraitu behar dugu. Erakundeen laguntza ere ezinbestekoa da. Diasporan gure folkloreak produktu gisa saltzen da, baina gakoa aizkolaritza Euskal Herrian bultzatzean eta indartzean datza.



Auzoz-auzoko bilerek harrera ona izan dute

El actual Gobierno Municipal estableció al inicio de su andadura la participación como eje principal de la legislatura 2011-2015. Desde entonces, ha trabajado distintas vías de participación con el fin de dar voz a la ciudadanía y aplicar sus sugerencias y aportaciones a la gestión municipal. Una de las iniciativas más reseñables ha sido la convocatoria de reuniones en los diferentes barrios de Beasain,

Beasaingo udal gobernuak hainbat bilera antolatu zituen joan den azaroan herriko zenbait auzotan. Iniziatiba horren helburua: beasaindarren iritziak, iradokizunak, proposamenak edota kezak biltzea, horiek guztien balorazioa egin eta udal kudeaketan aintzakotzat hartuak izateko. Hala, udal ordezkariak Arriaran, Astigarreta, Garin, Matxinbenta, Gudugarreta, Beasainmendi, Igartza, Ezkiaga-Lazkaibar eta Erdigunea bisitatu zituzten auzokideen hitza entzuteko. Bileren ostean, Udalak balorazio bat egin du. Ondorio positiboak atera ditu, parte-hartzea nahiko altua izan baita. Etorkizunean bilera hauei jarraipena ematea aurreikusten da.

Auzokideen harrera ona

“Orokorrean harrera oso ona izan dute bilerek. Zenbait tokitan komentatu da eskertzekoa dela Udalak herritarren kezak eta iritziak jasotzera auzoz-auzo joan izana. Halaber, ekimen honi jarraipena emateko eskatu dute zenbait herritarrek”, nabarmendu dute udal ordezkariak. Parte-hartzearen datuak jaso ditu Beasaingo Udalak eta auzoz-auzo, honakoak dira jaso dituzten parte-hartze zifrak:

Arriaran 35 auzotar; Astigarreta 20 auzotar; Garin 12 auzotar; Matxinbenta 14 auzotar; Gudugarreta 10 bat lagun, Beasainmendi 14; Igartza 80 auzotar;

“Muchos ciudadanos ven positivo que el Consistorio se acerque a los barrios a recoger las preocupaciones de sus habitantes”

Entre los temas planteados por la ciudadanía, destaca la necesidad de mejorar los servicios (los caminos, las aceras, el alumbrado, el reciclaje...)

Ezkiaga 60; Erdigunea: batzar aretoa bete egin zen.

Gai aniztasuna

Bileretan aipatu diren gaiak eta eskariak mota guztietakoak izan dira. Auzo txikietan batik bat zerbitzuen inguruan dauden beharrak azaldu dituzte herritarrek: zaborra birziklatzeko aukera eza, telefonia arazoak, garrio publiko falta, bide edo herribideen egoera kaxkarrak, ur fekalak ez biltzearen ondorio txarrak, e.a. Auzo handietan, berriz, bideen, espaloien, argiteriaren, eta beste zenbait gairen inguruko kezak azaldu dira, tokian tokikoak.

Aurrerantzean, auzoetako beharrak landu ahal izateko, taldeak sortzeko aukera aztertuko du Udalak. “Matxinbentaren kasuan, adibidez, hiru herriren administraziopean dagoela kontutan hartuta, beasaindarren eta beste herrietako Udalaren artean osatutako batzorde bat osatzeko proposamena egin da”.

Bilera guztitik amaituta, eta balorazio orokor bat egin ondoren, Udalaren aldetik bilera horiei jarraipena emateko borondatea dago. Lehenengo txandaren balorazioa oinarri izaki, Udal Gobernuak datozen errondatarako planteamendu bat zehaztu nahi du laister. Horretarako, herritarren proposamenak jaso nahi ditu, auzoz-auzoko bileren antolaketa hobetze aldera.

acontecidas el pasado mes de noviembre. La valoración ha sido muy positiva: han sido muchos las y los beasaindarras que, además de acudir a las reuniones, han aportado sus ideas y soluciones en aras de mejorar el municipio entre todos.



Tras extraer las primeras conclusiones, el Ayuntamiento plantea la creación de grupos de trabajo en los barrios para dar solución a los problemas existentes

HERRITARRAK HARTZEKO ORDUTEGIAK:

Astelehena:

18:30 - 19:30

-GAZTERIA ETA KIROLA / Juventud y Deporte: **Asier Sarriegi**.
-UDAL ANTOLAKUNTZA / Organización municipal: **Aitor Larburu**.

De 19:00 a 20:00 horas:

-HIRIGINTZA, OGASUNA ETA ONDAREA / Urbanismo, Hacienda y Patrimonio: **Koldo Agirre**.

Asteartea

12:00 - 13:00:

-TURISMOA, ZERBITZUAK, LANDA INGURUNA ETA INGURUMENA / Turismo, Servicios, Medio Rural y Medioambiente: **Mari Mar Celaya**.

16:00 - 17:00 horas:

- PARTE-HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA / Participación, Igualdad, Migración y Educación: **Zezilia Herrador**.

Asteazkena

17:00 - 18:00

-KULTURA ETA EUSKARA / Cultura y euskera: **Unai Baztarrika**.

20:00 - 21:00

-GIZARTE ONGIZATEA / Bienestar Social: **Iñaki Saldaña**.

BATZORDEEN EGUNAK ETA ORDUAK:

Udal batzordeak herritarrei irekiak izango dira. Datoren leerroetan batzorde bakoitzaren bilera eguna eta ordua zehazten dizkizuegu.

- Ogasuna eta ondarea: 4.osteguna 15.30ean
- Udal antolakuntza: 1.astelehena 19.00etan
- Hirigintza: 2. eta azken astelehenetan 15.30ean
- Zerbitzuak, landa ingurunea eta ingurumena: 2.asteartea 18.30ean
- Kultura eta euskara: bigarren asteazkena

18.30ean

-Turismoa eta merkataritza : 2.astelehena

18.30ean

- Gazteria eta kirola: 1.asteazkena 19.00an

- Gizarte ongizatea: 3.asteazkena 18.00an

- Parte hartzea, berdintasuna, migrazio eta hezkuntza: 3.astelehena 18.30ean

Plenoak: lehenengo ostegunetan 19.00etan

